

Manex deituko dugu, horrela baitzuketen deitzen bere familiak eta adiskideek: Manex izenpetuak dira bere gutunak. 1859an sortu zen Hazparnen, Hazketa auzoaldean, malda baten gainean den Joanesederraenea etxean. Familia zapatagintzatik bizi zen, garai hartako hazpandar asko bezala, behi pare bat edo beste ere bazutela etxeko esnea egiteko doia. Etxean zelarik, laborantzan aritzen zen gure Manex.

1880an, 2.500 hazpandar ari ziren zapatagintzan, baina ez lantegietan; bakoitzak bere etxean egiten zuen bere lana eta nagusi bati eramaten, saltzea honen gain zelarik. Mende hondarrean ziren sortu lehen fabrikak eta horietarik bat hain zuzen, apezaren bi ahaidek: Pattotea, bere 400 langileekin Hazparneko lantegi handiena izana.

Urtarrilaren 30 hartan ez zen seme bat sartu Joanesederraenean, baina biritxiak, Manex beraz, eta Pattin edo Martin. Gratien Adema, *Zalduby* euskal idazle famatua Hazparneko bikarioa baitzen, harek bataiatu zituen, kaligrafia ederrarekin betetzen zuela bataio-agiria.

Fraileen eskolan egin zituen lehen ikasketak, garai haietako hazpandar

gehienek bezala: eskola publikoko irakaslea etsiturik zegoen bi haur baitzituen lerro-lerro bere eskolan.

Mixel Elizanburu fraile idazlea zen eskolako zuzendari, Errepublika, judu eta framazonen etsai errabiatua, garai haietako girstino asko bezala. Oso idorra zen eta bortitza. Oroitzapen txarrak zituen hor egin egonaldiaz Manexek. Larresoron irakasle zelarik idazten zuen oraino, ikaran zegoela haurtzaroko ikastetxearen ondotik pasatzean.



Manex Hiriart Urruty (1880-1915).



Apez egiteko nahikaria zuela jakinarazi baitzuen, Larresoroko Seminarioa joan zen: auzoko apez bat aurkitu zuen hor irakasle, geroago elizbarrutiko bikario nagusi izan behar zuen Diharce.

Ikasle ona zen gure Manex, arno zaharra bezala urtetik urtera hobetuz doana: lehen urtean lehen sari bat eta bost aipamen izan zituen, azken urtean lehen sari guziak eramateko.

Larresorotik Baionako Seminario Handira joan zen 1877an, 1882an apeztu, arte horretan urte bat iragan eta irakasle, Larresoroko Seminarioan, harat itzultzeko berriz apeztu orduko. Espainola ikasita ikasle zelarik, alemaniera irakatsi zien apezgaiei.

Irakasle ona zen eta bazekien artetan ikasleak irri eginarazten ez zitezen koropilatuta egon. Antzerkia ere eginarazten zien, nahiz bere apez lagunek zioten denbora galtzea zela. Gazteekin lan egitea gustatzen zitzaion eta nahiagoko zukeen parrokia zenbaitetan izan horretarako. Baina bere anaia biritxia hilik, honen hurrez arta hartzen zuen eta horretarako baitezpadakoa zitzaion irakasle-soldata.

1907ko abendu hondarrean utzi zuen seminarioa Baionako katedralean kalonje izendatua izan baitzen

bataiatua zuen Gratien Ademaren alka hartzeko, hau zendu eta zenbait egunen buruan.

1915eko hazilaren 4an hil zen, hamalauko gerla handia hasi eta urte baten buruan.

Horra zer izan den laburki Manex Hiriart Urrutyren bizia. Baina bizi horrek iraun duen 56 urte horietan gertakari handiak izan dira Frantzian, Frantziako Elizaren historia markatu baitute. Manexen bizi osoa bestelakoa izanen zen gertakari horiek izan ez balira.



Joanesederraenea, bere sortetxea.

FRANTZIA XX. MENDEAN

Iraultza eta Napoleon Inperadorearen gerlek ia-ia 25 urte iraun zuten eta Euskal Herria odolustuta gelditu zen: 1792an gerla izan zen hemen, Espainiaren kontra. 1813-14an urte erdi bat hemen egon zen Espainiatik Wellingtonek bota armada frantsesa, gure herria larrutzen zuela.

XIX. mendekoak dira Betiri Sants izenarekin goseteaz egin hainbeste kantu; mende horretan ehun bat mila euskaldun joan baldin bada Ameriketara, Betiri Santsek baduke zer ikustekorik. Napoleon miresten zuen bizkitartean gure Manexek.

Iraultza hasi eta, herri guziak apez eta serorarik gabe gelditu ziren hamar bat urtez. Apez asko hil zen eta berririk ez apeztu seminarioak hutsak zirelaketz. Iparraldean bederatzik gazte baizik ez zen apeztu 1803 eta 1812ko hamarkadan, urtean bat baino gutiago. Ez dira urtean lau izatera helduko ondoko hamarkadan. Urtean seietan izanen dira hogoiko hamarkadan. Hamar apez ordenatuak izan ziren 1882an, Manexekin betan.

Iraultzaren ondoko giroan, pertsekuziotik atera Eliza baten giro horretan, garai latzak gainditu Elizan, seminario, fraile- eta moja-etxe bete

ziren emeki-emeki. Eskolak eskutan hartu zituen Elizak, Estatua ez baitzen oraino gai lan horren egiteko. Elizak gaina hartu zuen, bereziki Napoleon III.a zelarik Frantziako buru, honek lagundu baitzuen. Baina hau hiltzearekin, III. Errepublika sortu eta Eliza-Estatu frantsesaren arteko gerla gorria piztu zen.

Iraultzak sarturik zuen leize-zolatik aterata Elizak bere indarra erakutsi nahi zuen herriaren begietan: ordukoak dira, Hazparnen, Manexen herrian, eliza berria 60 metro gora egiten duen dorre luzearekin, misiolarien etxea, kolegioa, kalbarioa. Ordukoak dira Uztaritz, Donapaleu, Maule, Atarratze eta beste eliza berriak ere, beren dorre luzeekin, 1873an zeruari gora abiatuak ziren katedralekoak idurikoak, ordu arte ez baitzuen dorrerik gure katedralak. Garai haietakoak dira, halaber, Uztaritzeko seroren etxe zabala,



Hazparne duela ehun urte.

Angelukoena... Sekulan ez bezala bizi zela, indartsu zela erakutsi nahi zuen Elizak.

Eskualduna astekarian buru-belarri xurien eta Elizaren alde ariko da gure hazpandar apezza.


4




Hazparneko lehen lantegitarik bat.

Labur biltzeko, Iraultzarekin sortu Errepublikak Elizari hainbeste pairarazi ondoan, Errepublika horren etsai ziren apez, serora eta giristino gehienak. Baina Errepublikak gaina hartu zuen behingoz 1870ean. Estatuak ez zezakeen onar Eliza bezalako indar bat bere kontra ari zedin, etxearen barnean. Gorriak deitzen zirenek beren eginahal guziak eginen dituzte etsai hori garaitzeko, Estatuak eskutan dauzkan ahal handiak baliatuz, bereziki legeak.

Legeak egiteko gehiengo bat behar da eta gehiengoa hauteskunderen bidez erdiesten da Errepublika batean. Gaur egun ez bezalako borrokak baziren hauteskunde-kanpainenetan, xuri eta gorrien artean. Gorriek irabaziko dute kasik beti Manexen bizi osoan Euskal Herrian ez bada ere, Frantzian bederen.



Gratien Adema, Zalduby.



Zaldubyk izenpeturiko bataio-agiria.

ESKUALDUNA ASTEKARIA

Eskualduna kazeta hauteskunderi buruz sortua zuen hain zuzen Louis Etcheverry Donazarreko politika-gizon xuri bonapartistak 1887an, beste muturretik Berdoly gorriak *Le Réveil Basque* sortua baitzuen xede berarekin urte bat lehenago.

Arnaud Pochelou aihertarra, Donibane-Lohizuneko herriko etxeko idazkaria izan zen lehen zuzendaria: Broussain hazpandarraren gutunetan ikus daitekeen bezala, ongi kontrolatzen zuen kazeta, aitzurrekin

moztuz artikulua beharrez, gustukoak ez zituelarik.

1.300 aletan saltzen zen ordukotzat astekari xuria, Hiriart Urrutyri dei egin ziolarik Etcheverryk 1891ko apirilaren 10ean. Ez arras uste gabetarik: *La Semaine* frantsesezko astekarian idatzia zuen azken hauteskunde-kanpainaren karietara. Hiriart Urrutyk baia eman zion "fedearen eta libertatearen etsaiak" gudukatzeko nahiarekin.

5



Hiriart Urruty bataiatu zuten Hazparneko eliza zaharra.



Hazparnetik Kanbora doan karroza.




Misionesten etxea Hazparnen.

Geroago erranen du zer zen bere xedea *Euskalduna*-n sartuz: “Euskaldun giristinoa nahi genuen eta nahi dugu oraino ere argitu erlisionearekin egiazko gizontasunari doazkion eginbide guzien gainean.”

Hamar puntutan erran zion nola ikusten zuen euskarazko astekari katoliko bat, hain segur puntu horietan *Euskalduna* ez zelakotz arras bere gustukoa. “Beti gizonki mintzatu” idazten du besteak beste. Gaur egun ezin sinetsia zaigu nolako eraso pertsonalak egiten ziren. *Euskalduna*-ri ere gertatuak zitzaizkion horrelakoak; hala nola, Los Angeles-etan euskara hutsez agertzen zen *Kaliforniako Eskual Herria* astekariarekin izan polemika batean.

Baina non dira fedearen alderako borrokaren mugak? Apezak gobernuak pagatzen zituen. Apezpikuak ere berak hautatzen. Zenbait hilabete lehenago, Jauffret apezpikuak —gobernamentuak Baionarako hautatua eta diputatu gorri baten anaia— hamar apez euskaldun zigortuak zituen gobernuak eskaturik, Errepublikaren kontra soberaxko mintzaturik beren prediku-alkitik: ez bat eta ez bi, egunetik biharrera tokiz aldatu zituen ordain bat igorritz berehala.



Sekulako polemika izan zen *Euskalduna* eta *Kaliforniako Eskual Herria* astekariaren artean 1893an.



Diharce hazpandarra elizbarrutiko bikario nagusi izendatu zuen Jauffret apezpikuak.

Ala herria, ala apezak hamar horien alde eman ziren: elizbarrutiko burua framazona zelako fama hedarazi zuten zenbaitek. Hamar horiek dei eginik Erromara, Aita Sainduak "monseigneur" titulua eman zien Diharassarry eta Mendiboureri. Zenbait lerro frango bipilak idatzi zituen *Eskualduna* kazetak apezpikuaren kontra. Bai eta honek eskatu ondoko alean zuzenketa bat egitea, bestenaz astekaria irakurtzea debekatuko ziela apez eta giristinoei, "bekatu mortalaren pean".

Hiriart Urruty apez horiekin zegoen bihotzez; Kanbotik Ortzaizera igorria izan zen Diharassarry aurkeztu zelarik diputatu-hauteskundeetan, harekin ibili zen "herriz herri, etxez etxe, harentzat boz galdez". Hil zelarik 3 artikulua bere bezain luze idatzi zituen *Eskualduna* astekarian bere adiskideaz. Apezpikua hil eta, artikulua xoil bat, deus guti erranez gainera.

Ez daiteke erran biloaren alde ferekatu zuenik apezpiku berria Hiriart Urrutyk, astekariaren kontrako mehatxueterik zenbait aste berantago sartuz kazetaren lankideetan. Konpainia onean zen Arnaud Abbadie Larresoroko kalonjea, Blaise Adema eta beste apez-multzo batekin.



Jean Etxepare gaztea Hiriart Urrutyren denboran ari zen *Eskualduna* astekarian idazten.



Larresoroko Seminarioa.

LAVIGERIE KARDINALA ERREPUBLIKAREN ALDE

Hiriart Urruty sartu eta bigarren arazo bat izan zuten: 1892an Leon XIII.a aita sainduak Frantziako katolikoei eskatu zien Errepublika onar zezaten: Errepublikan sartu eta barnetik behar zutela hobetu. Sortzez baionesa zen Lavigerie kardinalak oroitzeko mintzaldi bat egin zuen alde horretara, Alger hirian, ikusmolde horretarik urrun zeuden militar eta kargudun batzuen aitzinean. "Le toast d'Alger" garai haietako Frantziaren historiako data bat gelditu da.

Hiriart Urrutyk onartu zuen Aita Sainduaren aholkua beste batzuekin. "Errepublika" titulupean erantzuna ematen dio bere harriduraren berri eman dion irakurle bati: "Erran dugu Aita Sainduak kontseilatzen gaituela; bakearen gatik eta erlisionearen gatik, Errepublika on bat onets dezagun. Erran dugu Errepublika on bat izan dezakegula, baldin bozkatze guzietan gizon zuzenak, suhurrak, giristinoak izendatzen baditugu."

Etcheverryk ez zuen berdin hartu kardinalaren aholkua: Napoleon zalea zen. Noizean behinka piko batzuk botatzen zituen apezpikuaren kontra. 1901eko maiatzaren 12an, apezpikutegiko astekariak ohar bat

eginik piko horietaz, Etcheverryk erabaki zuen bere kazeta ez zuela gehiago agerraraziko.

Alde guzietarik presioa egin zioten eta Renaud d'Elissagaray zuberotarraren esku utzi zuen, bera itzaliz. Zuzendari berriak bi urte baizik ez zuen iraun. Bordele alde horietara joan zen, han segitzen zuela bere bizi politikoa.

Hiriart Urrutyk hartu zuen osoki eskutan eta erabaki zuen hats berri bat emanen ziotela astekariari. Etcheberryri ez zitzaion soberakinik gustatu aldaira hori eta *Eskualduna* izena berea izanez, horren baliatzea debekatu zioten. *Eskualdun Ona* izenarekin segitu zuen eta gaitzeko arrakasta bildu: sei urte gabe 7.000 aletan saldu zen.

1907an Etcheverry hil baitzen, bere alargunak eman zien *Eskualduna* izenaren baliatzeko baimena eta berriz ere *Eskualduna* deitu zen astekaria.



Baiona XIX. mendearen hasieran. Erdian Katedraleko dorreak eraikitzeko dira.

KAZETARIA

Eskualduna astekarian agertu zituen iritziak eta ideiak azaltzen segi aurretik, Hiriart Urruty kazetariaz ondokoek esan edo idatzi dituztenen multzo txiki bat bildu nahi dugu hemen.

Bere artikuluak irakurriz ikus daitekeenez, kazetari argia, zehatza eta bizi-bizia da Hiriart Urruty. Euskal kazetarien arteko lehena izateko ohorea du, gainera. Hil zenean hala idatzi zuen Gregorio Mujikak *Euskal-Esnalea* aldizkarian: "...esan dezakegu, jaun au izan dala orain arte euskerak izan duan 'periodista' bakarra. Lendabizikoa behintzat".

Piarres Lafitte, *Eskualduna* aldizkariaren segidako *Herria* astekariaren sortzaile, kudeatzaile eta kazetariak ere ospe handikotzat du: "Aldeko ala etsai, ezagutu zuten gehienek aitor zuten. Eskualdunen bihotzetan, eskual-idazle kondu segurik, fama handia hartze zukeela". Are gehiago, Lafitteren ustez, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko belaunaldi osoagan izan zuen eraginik: Saint-Pierre, Jean Etxepare, Jules Moulier Oxobi, Jean Elissalde Zerbitzari, Pablo Fermin Irigarai, *Iarreko* eta abarrengan.

Horixe berbera aitortzen du Villasantek ere *Historia de la Literatura Vasca* liburuan: belaunaldi oso baten irakasle izan zela, bakoitzari euskarazko moldeetan pentsatzen eta idazten irakatsiz.

Manex Hiriart Urrutyren zenbait lan bilduz Iñaki Caminok paratu eta *Klasikoak* sailean argitaratu zuen *Gontzeta*rik *Jalgia*raziak izeneko liburuan honela laburbiltzen digu hazpandarraren kazetaritza: "*Eskualduna* astekariak Ipar Euskal Herriko kazetaritza eta Hiriart Urrutyk orduko idazleengan izandako eragina ez dira ukatzen ahal, batek baino gehiagok aitortu baitzuen Hazparneko apezaren lanenganako eta idazteko moldeekiko sentitzen zuen mirespena, saihebidetako gabeko zuzeneko hizkuntzatik eta herri euskara bizitik ematen baitzuen".

Eta politika-giroa ere halakoxea zenez, "suminkor eta ezten zorrotzeko agertzen zen aste orotako *Eskualduna* eta *Eskualdun Ona*-ko editorialean", Iñaki Caminok dioen bezala. Hemen argitaratu ditugun pasarte laburrak ere aski dira horretaz ohartzeko.

GIZON TZARRAK

Nor ditu bada Hiriart Urrutyk ordaindu edo astindu behar litezkeen gizon horiek? Juduak, framazon edo hargin beltzak eta sozialistak, horien esklabo baitira politika-gizonak. Horien politika baita "Errotik ken fedea eta hari darraizkon guziak, apez eta serorak, elizak eta bertze gaineratako guziak." Eta beste hau: "Framazonen eskuetan gira. Heiek ditugu nagusi. Haien nahitik doatzi aspaldian Frantziako lege eta gora behera guziak. Hainbestetaradino non lege berri bat egiten dutenean, bi begiak hetsirik erran baitezakegu: lege tzarra, framazon legea." Horra zer irakur daitekeen bere artikuluetan etsaitzat dauzkan horietaz. Hitz gogorak.

Frantzia guzia inarrosi zuen eskandalua izan zen Panamako ubidea zulatzeko dirua bildu zelarik... eta desagertu, sekulako politika-gizon alde saltsan sartua zela: "Diote badirela ehun eta zenbeit deputatu ere auzi horretarik eskuak garbi eta buruak goraki aterako ez direnak." Baiona hunkia zen, Ferdinand de Lesseps ubidearen inginadorea, Baionako baitzen. Eskandalua gorenean delarik juduez idazten du: "Nehon diren judu eta alfer mandrineria jende-jale guziak bildu ziren sosaren usainarekin. Berrehun

milun berehala suntsitu ziren berrehun sos baizik izan ez balire bezela. Nehork ez du egundaino jakin noren sakelan sartu diren heiek oro".

Bigarren eskandalu bat izan zen Dreyfus kapitain judua kondenatu izan zelarik traidore bezala eta azkenaren buruan, salaketa guziak gezurrezkoak zirela agertu. Gorriak ziren juduaren alde agertu. Xuri eta katoliko gehienak kontra. Afera horretaz irakurtzen dugu "Judu traidorea" titulupean: "Badakizue zer lan itsusia zuen egina judu tzar higuigarri horrek: soldado batek egin dezakeen tzarkeriarik handiena... Gerlako ministroaren eta Frantziako jeneral handien segetuzko paper batzu ebatsirik, saldu ditu Dreyfus Kapitainak."




Elizaren indarra Baionako kaleetan agertzen da prozesioen bidez.

Etsaiak ez ditu politika-alderdi batzuk orokorki. Izenak ere ematen ditu: "Combes apezgei arnegatua", "Ez da Combes ministro buruzagi tzar hura baino gizon itxura hitsagorik (hitsago baititu oraino egitateak)". "Legea onar ala ez onar, bardin zaiku; katolikoena egin du" erran zuen Clémenceau lehen ministroaz. "Azken hamabost urte hauetan Frantzian egin diren lege tzar guzien, eta bereziki eskoletarik erlijioa kendu duen lege higuigarri horren egile nausia izan den Jules Ferry" eta honen heriotzeaz idatzi artikuluaen titulua famatua da: "Bat gutiago"

Sozialistak ere zaku beren sartzen ditu. Caillaux ministroaz idazten du:

"Gorri egosi sozialist deus onik ez direnekin bat egiten zuelarik...". Berdoly, Zuberoa eta Baxenabarreko diputatu gorriaz erraten du: "gizon galdu higuigarria"

Renaud eta Floquet garaztarrei ere gazialdi bat eman die artikulua batean biltzen dituelarik biak. Tessier Arrutako auzapez gorriak artikulua bat badu burutik joaten delarik : "Ez ahal du balin bada nehork uste izan atsegin genuela hemen aspaldiko etsai batez gaizki mintzatzea (...) Lehenago ere, behin baino gehiagotan, bere buraren jabe zelarik, eta nehor bezen on bere makilaren xuritzeko, bereak aditurik dago hementxet Arrutako auzapez ohia."



Garai haietako katedrala.

LEGE TZARRAK

Zer ziren bada Hiriart Urrutyk begitan zeuzkan lege tzar horiek? Eskola publikoak laikotu zituzten: “Herrietako nahiaren kontra herri-
-eskolez jabetu zirenean eta zuzen izpirik gabe beren eskuraturikako eskola hoitarik, otoitza eta katixima fuera kanpo aurtiki... Gure etsaiak, Frantziako gobernamentuaz jabeturik, berenatarik egiten hasi zirenean eta bereziki erlisioneak eskoletarik kendu zutenean...”

Bigarren urrats batean, eskola giristinoak berak ziren hetsiak izan, apez, fraile eta serorek lekuak hustu behar izan baitzituzten: “Orai arte hain garbiki eta goraki errana: ‘Egizkizue nahi dituzuen giristino eskolak’. Eta orai zenbeitño, ahal bezala, egin ditugunean, solasa itzul: ‘Hetskitzue hortik freradun, seroradun eskola horiek’. Eta zalu gero hets.”

1879an diputatuen biltzarrean gorriek gehiengoa izan zutenetik legea legearen gainean aterako dute Elizako erakundeen aurka.



Hazparneko kolegioa.

1880an fraile- eta serora-
-kongregazioak debekatuak dira. 150
jandarme etorri ziren Belokera,
beneditarren kanpo emateko. Hurbil
hurbila zeuden armadako bi
konpainia: inguruetako ehun bat
nekazari etorriak ziren fraileen
laguntzera. Ez zen borrokarik izan.
Zigiluak emanak izan ziren komentuko
ateetan, baina leihoak hestea ahortzi
zitzaien. Fraileak barnean sartu ziren
leihoetatik, ateetako zigiluak
errespetatuz. Zenbait urteren
luzamena izan zuten. Dozena bat urte
berantago joan behar izan zuten,
batzuek Ameriketara, besteek
Nafarroako Olatzara edo Gipuzkoako
Idiazabalera. Donapaleuko 3
frantziskotarren kanporatzeko
jandarmeriako 7 brigada etorri ziren.

1881an eskola publikoa urrik
izanen dela denentzat erabakia da.
Haur guziek joan behar dute eskolara.
Jadanik, Elizaren eskolak begitan
dituzte.

1882an ez da gehiago apezik
lizeoetan. 1884an, apezak kenduak
dira eritetxeetatik.

Arrangoitzeko
markesa
—alkate-zinta
gerrian
daramala—
menotatu
(esposatu)
zuten Elizako
inbentarioak
egin
zituztelarik.



13



Hirurogei metro gora egiten duen Hazparneko eliza-
-dorrea garai haietan eraikia. Eliza puxant baten
lekuko.

14

1886an, serora eta fraile ez daitezke irakasle izan lehen mailako eskoletan. Legea aplikatzen hasi zirenean Ustaritzeko seroren 31 eskola hetsi ziren, Angelukoen 19. Fraileak joan ziren Baiona, Kanbo, Uztaritz, Bastida, Garazi, Maule, Ziburu eta Donibane-Lohizunetik.

1889an, apezgaiek soldadugoa egin behar dute beste gazteek bezela.

1890ean, Lavigerie kardinalaren mintzaldia Alger hirian, Errepublikaren alde.

1892an, Panamako eskandalua: 110 bat diputatu saltsan sartuak dira.

1894an, Dreyfus kapitaina Kaienera deportatua da, bizi guzian bortxazko lanetan aritzera kondenatua.

1898-1905 bitartean, antikerikalista gogorrenak dira boterean.

1901ean, serora- eta fraile-ordenek Legebiltzarraren eta Gobernuaren baimen berezia behar dute. Bostek baizik ez dute erdiesten eta 3.000 eskola katoliko hesten dira Frantzian.



ERASOA IPARRALDEAN

1903an katixima euskaraz egitea debekatua da eta frantsesez egin nahi ez duten apezpei paga kendua zaie. Estatuak ez ditu pagatu nahi frantsesa hedatzeko partez, euskaraz ari diren apezak. Herri guziak hunkiak dira erabaki honekin. Frantziako beste alde batzuetan zigorrak hartuak izanak ziren lehenago, baina, hemen, ez ziren menturatu. Combes lehen ministro kargutan sartzearekin 1902ko ekainean, Pabeko prefetari iduritu zitzaion haizea alde zuela.

Apezpikutegira jakinarazi zuen —apezpikurik gabe egon ginen hiru urte eta erdi— 1903ko Urtatsetik harat, katixima frantsesez eginen ez zuten apezek ez zutela gehiago apez-paga hunkiko. Dozena batek gogor egin zuen: Aldude, Baigorri, Duzunaritze, Domitxine, Muskildi, Lohitzüne, Ligi, Altzai, Lakarri, Donaixti, Irisarri, Bardoze, Aiherra, Donibane-Lohizune, Lehuntze, Zuraide eta Itsasukoak pagarik gabe gelditu ziren.

Zenbaitek, hala nola, Aiherrakoak, zeharkako bide bat hartu zuten: laiko batzuen gain eman zuten katixima euskaraz egitea.

1906an besterik izan zen eta katixima euskaraz hasi ziren berriz

ere, denak, ez baitzen gehiago paga galtzeko arriskurik: deneri kendua izana zitzaien.

1905ean, Napoleonen konkordatua ezeztatua da: Estatuak beretzen ditu Elizaren ondasun guziak —eliza, apezetxe, seminario, ikastetxe eta beste—. Hona zer idatzi zuen Hiriart Urrutyk: “Ebats komentuak; ebats girstino eskoletxeak; ebats orai azkenik apezgaien altxatzeko zernahi gostarik egin seminarioak. Oro ebats berehala: seminario handiak ala ttipiak oro.”



Louis Etcheverry, *Eskualduna* astekaria sortu zuen gizona, Donazarreko jauregi honetan bizi zen.

“Ebats herrietan elizarenak ziren apezetxeak; ebats arimentzat utzi meza sariak; herri gehienetan baitire hilek utziak, edo hilentzat biziek meza batzuen eman arazteko edo bertze zerbeit ongirentzat: eskola, eri, pobre laguntzeko diru batzu. Oro, oro, oro ebats gure ohoinek, legez edo alegia legez; berek egin legea ere den baino tzarrago eginez berek, ondotikako ‘decrets’, ‘circulaires’ buztaneria zirtzil zantzail batzuez.”

1906ko Eguberri aitzinttoan, apezpikuari bere etxea kendurik, joan behar izan zuelarik, jendea trumilka etorri zen “karriketan koka ahala, ikus ahala urrun, beltz beltza oro; lurra ez ageri, urrats bat ezin egin biziki nekez baizik.”

Zenbait egun berantago seminario handiaren aldia izan zen: “Astezken goizari buruz, gauaz inguratu dute soldadoz eta jandarmez seminario handia; eta gero, argitu eta berehala, bortak hautsirik, banazka, birazka, jandarmen artean, jalgi dituzte kanporat ixitudiantak, beren apez buruzagiekin... Jandarme batek bere anaia ixitudianta buruz buru eginik barnetik kanporatekoan jauzi egin dio gainera eta nigarrez elgar besarkatu dute bi anaiek, komisario tzar eta guzien aintzinean.”



Baionako apezpikua, François-Antoine Jauffret.



Diharassarry adiskidea. Apezpikuak zigortu eta Erromak “monseigneur” egin.



Lavigerie kardinala.

Anitzek uste dute euskara hutsezko astekaria zela. Ez! Eta hurbiltzekorik ere. 1894ko maiatzaren 18an, “Jaun batek gaizkiak igorririk bizi bizia” astekariaren erdia bederen euskaraz egin behar litekeela, “Eskuara gehiago” titulupean Manexek ematen dio erantzuna “laueko hortara bederen heltzen ez girenean beltzuri egiten diogu: ‘ez aski eskuara’.” Beraz kazetaren laurdena baino gehiago ez zen euskaraz. Artikulu hori agertu zenetik euskarak askoz ere toki gehiago hartu zuen. Gaude gaizkiak igorri zituen jaun hura ez ote zen bera. Ondoko astetik askoz ere gehiago euskara bada.

Euskara estimu handitan dauka, lehenik lekuko mintzaira delakotz: “Ez zait iduritzen mundu honetan deus hanbat gizonaren bihotza hurbilagotik hunkitzen duenik nola baitira hiru gauza: erlisionea, sor lekua eta sor lekuko mintzaira.”

Beste nonbait idazten du: “Zer dira euskarari begiratu eta gure auzo herrietako mintzaira eta erdara guziak? Deus ez! Hauts eta errauts baizik...”

“Beste bat nihon ez bezelako mintzaira, euskara; gizon argitueneke

diotenaz, horrelako bakarra; egiazko ontasun bat hor, guk eskuetan duguna; hainbestetaradinokoa non arrotzak elgarri baitaude nola ez garen huntaz hartuago, honi atxikiago eta jarraikiago.”

“Hain da zaharra, aitasotua, ez balu ere besterik alde, iraun duen mende lerroa baizik —ez jakin zenbat— adinean hain da urrun joana non gaztetuz gibelerat baizik ez baitezake hemendik harat egin. Hiltzekotz, hila liteke aspaldi ja.”

Iduri luke ez zela euskararen geroaz kezkatu: “Ez gara baitezpada gal dadien beldur. Sobera ditu erroak lurrean barna eta adarrak lodi eta azkar.”



Renaud d'Elissagaray.

Eta gaur egun oraino urrezko hitzez idatzi behar litekeen ateraldi hau: "Euskara kenduz geroz, kentzen ahal ligukete euskal izena ere. Zertarako genuke? Euskarari esker gara Euskaldun."

Baina bere arrangurak izan zituen egun batez: "Euskara badoa, gure ezazolkeriaz"

"Euskal Herri betean, asko etxetarik haizatua euskara (...) Atxikitzekotz ere, sehientzat, bainan jaun anderek elgarrekin edo haurrekin? Behautzue! Lehenago frantsesa jakin gabe murruska, dakitenen irringarri."

"Deustako, nehorentzat ez dela on euskara."

Gure ezaxolakeriaz beste etsairik ikusi zion euskarari. Kanpoan ere baditu: "Hain dute hastio askok euskara non, izenak berak okaztatzen dituela iduri baitute. Basque... hitz hori kasik ezin erran, goiti eskaini bat gabe."



Renaud garatzen, gorri moderatua.



Floquet, Frantziako Lehen Ministroa, Donibane-Garaziko gorria.

Katixima bretoieraz egitea debekatua izan zelarik senditu zuen gure aldia ere etorriko zela eta euskara eta fedea loturik baitzeuzkan, "Euskaldun fededun", orduan zuen idatzi: "Hil nahi ligukete gure mintzaira zahar maitea, lehertu, ezeztatu lehen bai lehen. Begien aintzinean ez dezakete ikus: poxulu dute, hots, ezin gehiago. Zertako,ote? Zoazi zu! Zertako diren diren bezelakoak? Tzarrik baizik, deus ez baidute gogoan!"

"Etsai ditu gobernamentuko eskolak beren buruzagiekin. Alde balitu bederen gure eskukoak! (...) Esker gaixto onik erakutsirik daude gaixo

euskarari. Euskal herri betean. Hazteria ukan balu ez zuten urrunago atxikiko eskoletxearen inguruetarik."

Eskolan ikusten du hain zuzen gaitzaren erremedioa: "Euskara eskolan ikasi behar liteke, Frantsesek frantsesa ikasten duten bezela eta arrazoin beren gatik: euskaratto hau hobekixago mintzatzan eta ixkiriatzen ikasteko."

"Apezek ez balin badigute behin ikusirik Euskal Herriko eskoletan euskara frantsesarekin ikasten zoin gehiagoka, batek bestea poxelatxe ordez, lagunduz..." Eskola elebidunen aintzindari dugu gure Hiriart Urruty.


Nor egon liteke dudan lerro hau izenpetzeko gaur egun oraino: "Euskara bizizekotz, biziko da Euskaldunei esker."

19

20

Euskara batuaren beharra ere senditzen zuen. Hendaian zen Euskal Herri osotik etorri 30 bat euskaldun bildu zirelarik 1901ean. Ondotik egin artikuluan irakur dezakegu: "Lehen lana, lehenik hasi dena, eta ene arabera, bururatu arte lanak emanen dituen lana da: ortografiaren zuzentzea eta hein bat bederen bateratzea."

Bai, lanak eman ditu! Arantzazuko bilkura arte, 1968an, ez da horrelakorik erabakia izan.



Jean Pierre Elissague.
Katixima euskaraz egiten
zuelakotz Donibane-
-Lohizunen paga kendu
zioten.

EUSKALDUNEN BATASUNA


Euskararen batasuna aipatzen du. Euskaldunena ere: "Euskaldun guziek elgar anaitzat ezagutzen dute beti eta orotan, itsasoz ala mendiz elgarretarik urrun bereziak izanik ere. Deusek ez du behin ere batasun hori hautsi ahal izan (...) Dugun atxik beti batasun hori eta hortakotz datxikagun orok sineste bati eta mintzaira bat."

Abertzale ote genuke gure Manex Hiriart Urruty? Menturaz hori sinets liteke oraino lerro hauek irakurtzean: "Ez utz gure eremuetan arrotza, bereziki arrotz etsaia nagusiterat. Dagoela bakotxa bere zedarrietan. Gure buruen jabe nahi badugu egon beti, jakin dezagun beldurrik gabe, behar arau mintzatzan eta egiten. Ez izan uzkur, ez herabe. Jazar etsaiari, zangoa buruaren gainean ezarri nahi ligukenean. Eta ez badu sinetsi nahi gu garela, gu Euskaldunak, herriko nagusi, jo muturrean."

Baina beste nonbait irakur daiteke: "Aspaldi du, mendeak ditu, Espainia Frantziak bekaizti dela; mendeak begietan gaituztela gure auzoek; eta ez gero, uste bazenute ere, bakarrik hango nonbeiko Espainia barneko eta beherekoek, baina hor, gure auzo hurbil eta euskaldun anaiek ere (...) Zazpiak bat behar garela beti egon

Euskaldunak, elgarren haurride mintzairaz bezela bihotzez; eta gero noiznahi makurbide eta gerlabide, eta auzibide. Garazi aldeko mendietan abere eta azienden alapidez bakerik ez dukegula..."

21



Euskaldun dira bai, baina batzuk Frantziako besteak, aldiz, Espainiako: "Ahantzia naski gure arbasoek beren baitarik eta beren nahiz frantses bilakatu zirenetik honat, Euskalduneri, bai eta euskarari asko zor badiola Frantziak.(...) Orobat erran dezakegu Espainiaz, edo are gehiago."

Kurioski, iduri luke Frantziako eta Iparraldeko Elizaren garai ilunena izan den Iraultzaren ondorioak onartzen dituela hor, duda izpirik gabe.

Mende honen hastapenean, Broussain, Constantin, Mendiboure, Dourisboure, D'Andurein eta beste zenbaitetik aipatua baitzuten alderdi abertzale bat sortzea... eta *Euskalduna* astekaria eskutan hartzea horretarako, Hiriart Urruty batere ez zen haiekilako. Broussainen artikuluak zentsuratuak ziren astekarian agertu aintzin abertzale kutsua zuten bezen segur; eta hona zer idatzi zuen behin bere kazetan taldeño hori gogoan zeukala: "Egungo solasa dugu Frantziatz, Euskal Herriaz, Espainiaz. Bertze bien artean, Euskal Herria, bietarik berex, izaitez hala ez bada ere, hala behar omen liteke holetan. Eta nork? Espainiako aldean hainitzek eta ez ahapeka. Hemen Frantziako alde honetan ere ba omen, bakar batzuek. Zenbatek? Egundaino ezin dut jakin. Oro batera emanik ere ote

dira hamar? Gehiago uste duena mintza. Nik ez nezake bostez on egin. Biga baizik ez zaizkit mementoan gogoratzen."



Horra gauzak argi eta garbi erranak. Frantzia horrelako etsaia izanik Hiriart Urrutyk hain maite zituen Eliza, erlisionea eta fedearentzat, nolaz izan da hain atxikia Frantziari? Nola ez zaio gogora jin Manex Etxamendy Ezterentzubiko auzapezak bertsoan erran zuena, katixima euskaraz egitea debekatu zutenean:

Gure eskuara maite hau
kentzekotzat Frantziak
Hobe laike Frantziatik
bagine bereziak.

Gertatu da Hiriart Urrutyk fedeaगतिक urteak eta urteak borroka gogorak eraman dituela Frantziako gobernu gorrien kontra, Frantziako katoliko eta xuriekin eskuz esku. Hauekin duela sofritu: norekin baita gehienik sofritzen eta harekin dira lotura sendoenak. Aldiz harreman guti izan du hegoaldearekin. Euskarazko katiximaren garai gogor haietan Broussain bere herritarrari idatzi zion beste nornahik bezainbat maite zuela euskara bere mintzaira. Baina ikusiz nolako erasoak jasan behar zituen fedeak, mintzairaz gutiago arrangura zela, askoz ere gehiago erlisioneaz.

Lerro hauek Hegoaldean irakurtuak izanen eta ez gaudeke aipatu gabe zer pentsatzen zuen zezen-lasterretaz: "—Balinbada Espainian aztura zoro

makurrik, hori da zezen kurtsetako hori.

—Ba ote?

—Ba, ba, oterik gabe, hori da erokeria handienetarik bat. (...) Dagozila han, zezen hiltzaile guziak, honat etorri gabe. Gutartean odol eta orro gose direnak, doazila Donostiara, edo nahi badute Madrilera. Guk ez dugu Frantzian horrelako beharrik."

23



Pierre Broussain Hazparneko auzapezak nahi izan zuen *Euskualduna*-ren kontrola hartu astekari abertzalea egiteko. Hiriart Urrutyk zuen hartu eta frantsesa egin.

Horra zer izan den Manex Hiriart Urrutyren bizia, Eliza eta euskararen zerbitzuko, baina Frantziaren mugetan geldituz. Euskarari indar bat eman dio Iparraldean. AEK sortu aurretik, jendea alfabetatua izan da, aste oroz irakurtzen baitzituen *Eskualduna*-ren orrialdeak, buruan buru gehienetan. Euskarazko kazetaritzan eredu bat gelditzen da, lehen eredu historikoki.

Ideiei doakienaz hiru diputatuetarik bi gutienez gorriak baldin baziren oraino joan den mende hondarrean, hirurak xuriak izanen dira askotan edo gutienez biga, mende honen hastapenetik. *Eskualduna*-k izan du bere eragina aldaketa horretan.



Chansons Basques izenburudun eskuizkribua. Hiriart Urrutyk eta Melvillek prestatutako bilketa da hau.

